EREIN Argitaletxea
Tolosa etorbidea 107
20018 DONOSTIA (Gipuzkoa)
Tel.: (+34) 943 218 300
erein@erein.eus
www.erein.eus

Iñaki bota daue

Kanpazar, 1975: Gerra zikinaren hastapena

Pako Aristi

Bilduma: Lekuko, 21
Formatua: **160 x 240** mm
Orrialdeak: **240**
Koadernaketa: Paper-azala

Argitalpen data: 2025-06-16
ISBN-a: 978-84-1093-034-6
Materia: Helduentzako literatura

Salmenta prezioa

23,00 €

ISBN: 978-84-1093-034-6
9 788410 930346

1975eko udazkenean Francisco Franco diktadorea hilzorian dago. Bi urte lehenago ETAk Carrero Blanco Espainiako gobernuburua hil du, eta denek dakite aro bat amaitzera doala. Halere, ez da bakean hilko. Irailaren 27an Juan Paredes *Txiki* eta Angel Otaegi etakideak fusilatu dituzte, FRAP taldeko hiru militanterekin batera.

Data horretatik urriaren 12ra bitarteko egunak tentsio handikoak izan ziren Euskal Herrian. Beldurra nagusi da gure herrietan, polizia alerta egoeran dago, baina ezingo du eragotzi ETAren erantzuna: urriaren 5ean, igande goizez, lehergailu bat zartatu du Arantzazun eta hiru guardia zibil hil ditu. Kolpearekin sututa, Espainiako gobernuak ezohiko bilera deitu du biharamunerako.

Atentatuak mendeku gosea piztu du: igandean bertan, iluntzean, aurpegi estalia daramaten hiru gizonek Iñaki Etxabe metrailatu dute Kanpazar gainean duen ostatuan, bere anaia Juan Jose ETAko buruzagia izana delako. Hurrengo igandean, German Agirre taxilaria ere metrailaturik agertu da Legution.

Iñaki Etxaberena izan zen, Iñigo Iruinen hitzetan, estatu terrorismoaren belaunaldi berriko lehen hilketa.

Ikerketa sakona dakar liburuak, gure historiako garai ilun baten kronika paregabea.

Pako Aristi

Pako Aristi (Urrestilla, 1963). Kazetaritzan lizentziatua da. 21 urterekin atera zuen bere lehen nobela, *Kcappo* (1985), eta geroztik idaztera dedikatu izan da, kazetaritza baztertu gabe. Genero asko landu ditu. Narratiban beste lau nobelaren egilea da, *Irene, Krisalida, Urregilearen orduak* (Espainiako Kritika saria, 1998) eta *Rosa itzuli da*. *Auto-stopeko ipuinak* ere idatzi du, eta liburu berezi batzuk ere baditu generoen mugak hautsiz eginak: *Gauza txikien liburua* eta *Note book*, guztiak Erein argitaletxean. Haur literaturan ere oparo jardun du.

Bere azken ikerketa lanak hauek dira: *Irunberri, 1990: Arroilaren negarra* (2023) eta *Uztapide eta Xalbador* (2024).